

## John Echeverria, Renoko *Center for Basque Studies*-eko Kontseilu Batzordeko lehendakaria

“Gure lehen helburua da CBS-ren beharrek agintzen diguten egoitza lortzea”

Hogeita hamabost urte ere badira euskal ikasketen programa Nevada-Reno Unibertsitatean abiarazi zutenetik. Ikerketa lekua da, oroz gain, eta askotariko gaiak landu izan dituzte bertan. Euskal liburutegia bera ere, Euskal Herritik kanpora denik eta gordailurik bikainena. Orain dela bi urte, berriz, Kontseilu Batzordea jarri zuten martxan. John Echeverria da batzorde horretako lehendakari eta berarekin mintzatu da Berripapera.



Berripapera: Zer dugu Renoko *Basque Studies*?

John Echeverria: Zehaztasun bat, izenari dagokionez: *Basque Studies Program* izan zen lehenengo. William A. Douglass-ek hasi zuen bidea, 1968 inguruan. Ezdeusetik sortu zuen egitasmoa, hogeita hamahiru urtez zuzendu zuena. Mende berriarekin batera erretiratu zen Douglass eta Joseba Zulaika izendatu zuten zuzendari berri. Izena ere izanaren arabera aldatu –osatu, nahi izanez gero–, Kontseilu Batzordea eratu, bide berrietan abiatu... *Center for Basque Studies* dugu harrezkero, euskal gaien ikerketa helburu duen ikastegia.

B.: Ikerketak, zein arlotan?

J.E.: Hainbat arlotan: antropologia, historia, emakumeei buruzkoak, kultura, literatura, bibliografia, lexikografia. Euskal Herriari loturik jardun dugu, beti ere. Argitara emandako lanetan, berriz, emigrazioa, nazionalismoa, etnografia, biolentzia politikoa, euskara... Euskera-Inglés/Inglés-Euskera hiztegi mardul lehena ere *Basque Studies*-ek burutu zuen.

B.: Eskolak ere ematen dituzue...

J.E.: Bai, irakaskintza ere gure helburuetan da. Ohiko eskolak ematen ditugu –euskara, kultura, historia eta beste–, eta Internet bidez ere hasi gara zenbait kurtso ematen. Bestalde, unibertsitate honetako atzerriko ikasketen programa ere ez dugu apartekoa, Basque Studies-en baitan sortu baitzen eta haren zuzendari Carmelo Urza CBS-ren Kontseilu Batzordeko kide baita.

B.: Euskal liburutegia Nevada-Reno Unibertsitatearen perla omen da...

J.E.: Zuzen ari zara. 50.000 liburu baino gehiago, eta 1.500 aldizkari eta egunkari. Ale batzuk, gure liburutegian baino ez dituzu, munduan! Materiala katalogaturik dago, era elektronikoan ere bai, eta Internet bidez egin litezke kontsultak.

B.: Mintza zakizkigu Kontseilu Batzordeaz.

J.E.: William Douglassen erretiratzearekin batera etorri zen. 2001eko urtarrilean CBS-ek kanpaina bat abiarazi zuen bere aurrekontuak handitzeko, asmo gehiago burutzeko, leku gehiago izateko, eta bere egoitza izateko, egun CBS-ren bulegoak unibertsitateko liburutegi nagusiaren eraikinaren baitan daude eta. Oraintxe-oraintxe, horixe da gure lehen helburua: CBS-ren beharrek agintzen diguten egoitza lortzea.



1

Renoko *Center for Basque Studies*

2

PERTSONAJEA:  
Julian Alustiza

LABURRAK  
*Idatziak, euskaraz ongi idazteko gida*

*Kutsidazu bidea, Ixabel, antzerkira*

“Plater bereziarena, euskara” kanpaina Zarautzen

3

EBPN garatzeko dirulaguntzak

Euskara planak MCCko kooperatibetan

4

Euskararen Aholku Batzordearen urteko lan-programa



## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko dirulaguntzak

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu edota entitateotako administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak onartzeko dirulaguntzak emateko agin-dua apirilaren 23an argitaratu da.

Dirulaguntzetako jasotzaileak lau multzotan banatu dira:

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko urte anitzeko plan estrategikoa eta 2003ko kudeaketa-plana 2003ko maiatzaren 31rako onartu dutenak.
- Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatu eta 2003ko abenduaren 31rako onartuko dutenak;
- EBPN garatzeko 2004ko kudeaketa-plana 2003ko abenduaren 31rako amaitu eta onartuko dutenak eta, azkenik,
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu-neurriren bat garatzeko ekintzak 2003an gauzatuko dituztenak.

Zenbait kasutan multzo horietako bat baino gehiagora aurkez daiteke udala edo mankomunitatea.

Dirulaguntzei buruzko zenbatekoa esleitu, finkatu eta ebazpen-proposamena egiteko epaimahaiak irizpide hauek erabiliko ditu:

- proiektuaren kalitatea (diagnostikoa egina izatea, EBPNko esparru-neurriak garatzea, lehen-tasunak bat etortzea diagnostikoarekin, egitarau berriak izatea, giza eta diru-baliabideak aurreikustea, administrazio euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeko emandako urratsak, urratsen egokitasuna, egitarauak EBPNren neurriekiko duen lotura, egitarauen bideragarritasuna eta eragingarritasuna...).
- entitateak indarrean duen aurrekontuarekiko euskararen sustapenean erabilitako gastuak 2002tik 2003ra izan duen gehikuntza;
- euskararen sustapenerako 2003ko gastua entitateak indarrean duen aurrekontuarekiko eta, azkenik,
- proiektuaren guztirako aurrekontua.



Agindu horren bidez ezarritako dirulaguntzetarako guztira 1.742.935 € erabiliko dira. Deialdi honetara eskabideak aurkezteko azken eguna 2003ko maiatzaren 31 da. Informazio gehiago izateko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara dei dezakezu.

## Euskara planak MCCko kooperatibetan Gaiari buruzko jardunaldia antolatu dute udako

MCC (Mondragon Corporación Cooperativa) enpresa-taldeak bere baitako kooperatibetan euskara planak zertan diren azaldu eta jorrazteko jardunaldia antolatuko du datorren udako. Enpresa arloa euskalduntzeak duen garrantzi nabarmena azpimarratu eta aztertzeko asmoa dute ekainean egingo den jardunaldian. Hainbat gai izango dira aztergai bertan eta, besteak beste, euskara planen finantziazioaz edota eleaniztasunak behar duen itzala eta norbana-koarentzako eta enpresarentzako dakarren aberastasunaz ariko dira. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urtero argitaratzen duen enpresetan euskara planak garatzeko dirulaguntza deialdian aurkeztu izan da aspalditik MCC kooperatiba-taldea eta, bere barnean euskera planak bideratzeko dirulaguntzak lortzeaz gainera, euskara planak egokitasunez landu izan ditu.



